

ETXEBIZITZA ESKUBIDEA BERMATU.



ehbildu



ETXEBIZITZA ESKUBIDEA BERMATU.

EH Bildun badakigu Busturian dugun arazo handienetako bat etxebizitzarena dela. Euskal Herriko herri gehienetan ohikoa den arazo hau, gure herrian dauden zenbait egoera zehatzek areagotu egiten dute:

- **Etxebizitza librearen eskaintza mugatua**, batez ere alokairurako.
- **Etxebizitza publikorik ez izatea**. Ia hogeita hamar urtetan ez da etxebizitza publikoren eskaintzarik egin.
- Busturiak **ez du onartu bere Hiri Antolamenduko Plan Orokorra**, hainbat hamarkadetako izapideen ondoren. Indarrean dagoen hirigintza-araudia 90eko hamarkadan onartu zen; beraz, gehiena ezin da aplikatu.

Jarraian ematen diren datuek (EUSTAT) ezin hobeto azaltzen dute arazo horrek gure udalerrian duen larritasuna. Gainera, grafiko hauetan ikus daitekeenez, badira kontuan hartu beharreko beste faktore garrantzitsu batzuk ere. Adibidez, Busturiko **etxebizitzaren erdia ez da jabeen egoitza nagusia, bigarrena baizik**.

Udalerriko etxebizitzak, etxebizitza-motaren arabera

	2015	2016	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Guztira	1.311	1.320	1.377	1.379	1.391	1.388	1.398	1.396
- Famili etxebizitzak	1.308	1.317	1.374	1.376	1.388	1.385	1.395	1.393
- Etxebizitza nagusia	707	699	702	693	692	693	706	695
- Gainerakoak	601	618	672	683	696	692	689	698
- Establezimendu kolektiboa	3	3	3	3	3	3	3	3

Hurrengo taulan ikus daiteke Busturiko etxebizitzaren egoera oso larria dela: zaharrak, gasik gabe, eta 1400 etxebizitzetatik soilik 300ek baino ez dute igogailua. Hala ere, udalak honen aurka egindako inbertsioa hutsaren hurrengoa da.

Udalerriko etxebizitzak egiturazko ezaugarrien arabera

	2015	2016	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Batez besteko antzinakotasuna	50,5	51,6	53,3	54,2	54,9	55,8	56,9	57,9
Batez besteko azalera erabilgarria	105,9	106	106,1	106,1	106,5	106,5	107,1	107,2
Igogailua	266	267	277	277	286	287	288	301

ETXEBIZITZA-LURRA



Egoitzarako lurzorua:
hektareak (2023)
57,28



Biztanleria-dentsitatea:
bizt/km2 (2023/01/01)
83,54



Batez besteko azalera erabilgarria
(familia-etxebizitzak): m2 (2023)
107,2



Etxebizitzaren batez
besteko antzinakotasuna:
urtetan (2023)
57,9



Bizitegi-etxebizitzetako
hodi-gasa: % (2023)
9,9



Udaleko gastua etxebizitzan
eta hirigintzan: € (2022)
873.673

Aipatutako guztiak erakusten du egungo gobernu taldeak ez duela ez ekimen politikorik ez beharrezko borondaterik panorama hori aldatzeko. Ez du balio "udal gobernutik etxebizitza arloan ezer gutxi egin daitekela" esateak. Gu, EH Bildutik, ez gara ezkututzen aitzakia horretan, eta horregatik proposamen hauek guztiak aurkeztu ditugu:

1 HAPO-PGOU berriaren presazko tramitazioa

HAPO-PGOU berria presaz tramitatzen hasia. Etxebizitzako eskumen guztiak udalen esku ez badaude ere, plangintza oinarritzko tresna da konponbideak artikulatzen hasteko.

2 Etxebizitza hutsen errolda egitea

Errealitatearen diagnostiko egokiagoa egin ahal izateko eta alokairua sustatzeko neurri fiskalak hartzen diren eztabaidatzeko.

3 Herritarrei entzutea

Entzute prozesu parte-hartzaile bat hasia herritarrekin batzar batera deituz, bere nahiak eta beharrak adierazi ahal izan ditzaten.

4 Etxebizitza huts bakoitzeko tasa aktibatzea

Busturiko araudiak etxebizitza hutsen tasa berehala ezartzea aurreikusten du, baina ez dago indarrean.

5 Etxebizitza Turistikoak mugatzeko moratoria

Beharrezkoa da legeak egitea eta dekretu bidez horiek ugaritzea mugatzea, eta etxebizitza mota horiek mugatuko dituen araudia jasotzea HAPO-PGOU berrian. Ez dezagun itxaron negozio horiek kontrolik gabeko arazo bihurtu arte, gertuko udalerrietan gertatzen ari den bezala.

6 Etxebizitza Turistikoen udal-tasa

Etxebizitza Turistikoei udal-tasa bat ezartzea eta diru hori etxebizitzaren arloko gainerako jarduketara guztietara bideratzea.

7 Araudia betetzen dela kontrolatzea

Lehendik dauden eta lizentzia duten Etxebizitza Turistikoek araudi osoa betetzen dutela kontrolatzea eta ziurtatzea.

8 Presape proiektuari berriz ekiteko aukera

Eusko Jaurlaritzarekin eta Etxebiderekin Presape proiektuari berriro ekiteko aukera aztertzea, alokairu sozialeko etxebizitzaren eraikuntzara egokituz.

9 Larrago eta San Bartolome alokairuan jartzea

Udalaren jabetzako bi etxebizitza horiek gaitzea, lehiaketa publikoan alokatu ahal izateko.

10 Altamirako Agarre baserriari erabilera ematea

Busturiko ondare den eraikin babestu hori erabiltzeko behar diren kontsultak eta txostenak egitea, udalaren jardun ezagatik erortzen ari baita.

11 Baserrien egokitzapena erraztea

Hala eskatuta, baserriak etxebizitza bat baino gehiago izan daitezen errazteko bereizketak erraztea, ahal den neurrian eskakizunak egokituz. Askotan, beren bolumen handiagatik, jabeek ezin dituzte baserriak birgaitu eta egokitu, horrek dakarren kostu handiagatik.

12 Etxebizitzak birgaitzeko laguntzak

Informazioa eta laguntza eskaintzea Eusko Jaurlaritzaren eta beste erakunde batzuen laguntzak izapidetzeko, etxebizitzaren irisgarritasuna, birgaitze energetikoa eta abar hobetzeko.

13 Alokairu biguna oinarrizko zerbitzuetarako

Aztertu udalak alokairu bigun baten bidez oinarrizko zerbitzuetarako (okindegia, merkataritza...) erabil daitekeen merkataritza-lokalik dagoen.

14 Gazteentzako ohiko bizilekuko etxebizitzak eraberritzeko tasen hobaria